

UROLA GARAIKO UDAL ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA ERATZEKO 2015eko IRAILAREN 17an EGINDAKO BILERAREN AKTA

Ezkio-Itsasoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko irailaren hamazazpiko arratsaldeko zazpitan bildu dira, lehen deialdian, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalerrietako zinegotziak, jarduneko lehendakari Oihane Zabaleta Mujika andreak deituta, Urola Garaia Udal Elkartearen Batzar Orokorra egitearren.

Honako zinegotziak izan dira ekitaldian:

Ezkio-Itsasoko udalekoak: Garikoitz Aiesta Etxaniz jn., Ander Unzurrunzaga Idiakez jn., Gorka Sasieta Barrenetxea jn. eta Miguel María Igartua Anduaga jn. (19:15ean).

Legazpiko udalekoak: Koldobike Olabide Huelga and., Javier Iraeta Alvarez jn., Eriz Galvez Alvarez jn., Iñigo Imaz Alcelay jn., Ane Urkiola Alustiza and., Sagrario Etxabe Lasa and., Gorka Iñurritegi Lasa jn., Rakel Puente Irurtia and., Oscar Valbuena Pascual jn., Roberto Alonso Yebra jn. eta Alberto Bezunartea Fernandez jn.

Urretxuko udalekoak: Jon Luqui Albisua jn., Itziar Agirre Berriotxo and., Igor Zubillaga Aguado jn., Juan Luis Albisua Garmendia jn., Maialen Fidalgo Mendizabal and., Oihane Zabaleta Mujika and., Iñaki Etxaniz Arregi jn., Unai Badiola Urrate jn., Nerea Altolagirre Berastegi and., Aitor Otegi Epelde jn., Fco. Javier Martín Mateo jn., Natividad Nieves Medina and. eta Alberto La Rosa Viedma jn.

ACTA DE LA SESION DE CONSTITUCIÓN DE LA ASAMBLEA GENERAL DE LA MANCOMUNIDAD UROLA GARAIA CELEBRADA EL DIA 17 DE SEPTIEMBRE DE 2015.


En el Ayuntamiento de Ezkio Itsaso, siendo las diecinueve horas del día diecisiete de septiembre de dos mil quince, se reúnen, en primera convocatoria, los concejales de los municipios de Ezkio - Itsaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga, convocados por la Presidenta en funciones Dña. Oihane Zabaleta Mujika, con el fin de constituir la Asamblea General de la Mancomunidad Urola Garaia.

Asisten al acto los siguientes Concejales:

Del municipio de Ezkio - Itsaso: D. Garikoitz Aiesta Etxaniz, D. Ander Unzurrunzaga Idiakez, D. Gorka Sasieta Barrenetxea y D. Miguel María Igartua Anduaga (a las 19:15 horas).

Del municipio de Legazpi: Dña. Koldobike Olabide Huelga, D. Javier Iraeta Alvarez, D. Eriz Galvez Alvarez, D. Iñigo Imaz Alcelay. Dña. Ane Urkiola Alustiza, Dña. Sagrario Etxabe Lasa, D. Gorka Iñurritegi Lasa, Dña. Rakel Puente Irurtia, D. Oscar Valbuena Pascual, D. Roberto Alonso Yebra y D. Alberto Bezunartea Fernandez.

Del municipio de Urretxu: D. Jon Luqui Albisua, Dña. Itziar Agirre Berriotxo, D. Igor Zubillaga Aguado, D. Juan Luis Albisua Garmendia, Dña. Maialen Fidalgo Mendizabal, Dña. Oihane Zabaleta Mujika, D. Iñaki Etxaniz Arregi, D. Unai Badiola Urrate, Dña. Nerea Altolagirre Berastegi, D. Aitor Otegi Epelde, D. Fco. Javier Martín Mateo, Dña. Natividad Nieves Medina y D. Alberto La Rosa Viedma.



Zumarragako udalekoak: Mikel Serrano Aperribay jn., Rosa Maiza Garrido and., Victoriana Badillo Remedios and., Antonio Navarro Pérez jn., Aranzazu González San Vicente and., Maria Victoria Portugal Llorente and., Ricardo Lozano Landart jn., Jose M^a Bermejo Vega jn., Inmaculada Albisua Irureta and., Miren Antzine Biain Fernandez de la Reguera and., Iñigo Peñagarikano Badiola jn., Josu Idigoras Eguia jn. eta Unai Orbegozo Uribesalgo jn.

Bertan izan da, halaber, María José Begiristain Zabalo idazkari andrea, ekitaldiaren fede emateko.

Idazkariak saioari hasiera eman, eta Mankomunitatearen Estatututako 4. artikuluko A apartatuan aurreikusten den Adin Mahaia eratu da; horretako kideak ekitaldian bertan diren zinegotzietan zaharrena den Javier Iraeta Alvarez jn. eta adinez gazteena den Alberto La Rosa Viedma jn. izan dira, eta Mahaiaren lehendakari eta idazkari karguak hartu dituzte, hurrenez hurren.

Aurreko pausoa osaturik, eta kontuan hartuta saio honetan Mankomunitatea osatzen duten 46 zinegotzietatik 41 direla eta, beraz, legezko gehiengo absolutua badela, Adin Mahaiaren lehendakariak formalki eratutzat deklaratu du Mankomunitatea.

Idazkariak bertan direnei azaldu dienaren arabera, Urola Garaia Udal Elkartearen Estatutuetan jasota dagoen moduan, eraketa saio honetan bertan aukeratu behar dira lehendakaria eta lehendakariordeak, ondoren datorren prozedurari jarraiki hain zuzen ere:

- Hautagai-zerrendak ekitaldia baino

Del municipio de Zumarraga: D. Mikel Serrano Aperribay, Dña. Rosa Maiza Garrido, Dña. Victoriana Badillo Remedios, D. Antonio Navarro Pérez, Dña. Aranzazu González San Vicente, Dña. Maria Victoria Portugal Llorente. D. Ricardo Lozano Landart, D. Jose M^a Bermejo Vega, Dña. Inmaculada Albisua Irureta, Dña. Miren Antzine Biain Fernandez de la Reguera, D. Iñigo Peñagarikano Badiola, D. Josu Idigoras Eguia, y D. Unai Orbegozo Uribesalgo.


Asiste también la Secretario, Dña. María José Begiristain Zabalo que da fé del acto.

Abierta la sesión por la Secretario, se procede a formar la Mesa de Edad prevista en el art. 4, apartado A de los Estatutos de la Mancomunidad, que queda integrada por el Concejal D. Javier Iraeta Alvarez, por ser el de mayor edad de entre los asistentes presentes en este momento, y D. Alberto La Rosa Viedma, por ser el de menor edad, ocupando respectivamente los cargos de Presidente y Secretario de la Mesa.

Realizada la operación anterior y habida cuenta de que concurren a esta sesión 41 de los 46 concejales que integran la Mancomunidad y, por consiguiente, la mayoría absoluta legal, el Presidente de la Mesa de Edad declara formalmente constituida la Mancomunidad.

La Secretario expone a los reunidos que tal y como se recoge en los Estatutos de la Mancomunidad, en la sesión de constitución de la misma ha de procederse a la elección de Presidente y Vicepresidentes, de acuerdo con el siguiente procedimiento:

- Las candidaturas han sido presentadas con cuarenta y ocho horas de antelación a la



berrogeita zortzi ordu lehenago aurkeztu dira gutxienez, zerrenda itxien sistemaren bidez, Udal Elkartearen Idazkaritza Orokorrean.

- Bilkuran diren zinegotzi guztiak dira hautesle.

- Boto kopuru handiena eskuratzen duen zerrendako burua izango da presidente. Berdinketa gertatzen bada, berriro joko da botaziora, baina honetan aurreko botazioan berdinduta geratutako hautagaiak izango dira soilik. Berdinketa mantentzen bada, Udal Elkartea osatzen duten udalerrri guztiak harturik udal hauteskundeetan boto kopuru handiena lortutako talde politikokoa hautatuko da lehendakari edo elkarteburu kargurako.

- Lehendakariordeak, berriz, botazioan bigarren, hirugarren eta laugarren geratzen diren zerrendetako buruak izango dira. Kargu hauetarako berdinketa gertatzen bada, Udal Elkartea osatzen duten udalerrri guztiak harturik udal hauteskundeetan boto kopuru handiena lortutako talde politikokoaren alde erabakiko da botazioa.

Azalpen hauen ostean, irakurri egin dira talde politikoen aurkeztutako hautagai-zerrendak:

EAJ-PNV

- 1.- Koldobike Olabide Huelga
- 2.- Iñigo Peñagarikano Badiola.
- 3.- Jon Luqui Albisua
- 4.- Javier Iraeta Álvarez.

EH BILDU

- 1.- Unai Badiola Urrate
- 2.- Antziñe Biain Fernández de la Reguera
- 3.- Gorka Iñurritegi Lasa

celebración del acto, mediante el sistema de lista cerrada, en la Secretaría General de la Mancomunidad.

- Son electores todos los Concejales presentes.

- El cabeza de la lista que obtenga mayor número de votos será elegido Presidente. Caso de producirse empate, se votará de nuevo, siendo los candidatos a Presidente en esta ocasión únicamente los que hayan empatado en la anterior. Si persistiera el empate, resultará elegido Presidente el perteneciente al Grupo Político que más votos hubiera obtenido en las elecciones municipales en el conjunto de municipios integrantes de la Mancomunidad.

- Los Vicepresidentes serán los cabeza de las listas que resulten en segunda, tercera y cuarta posición en el escrutinio de la votación. En caso de producirse empate para estos cargos, se dilucidará en beneficio del Grupo Político que hubiere obtenido mayor número de votos en las elecciones municipales en el conjunto de los Municipios integrantes de la Mancomunidad.


Tras este informe se procede a dar lectura a las candidaturas presentadas por los Grupos Políticos:

EAJ-PNV

- 1.- Koldobike Olabide Huelga
- 2.- Iñigo Peñagarikano Badiola.
- 3.- Jon Luqui Albisua
- 4.- Javier Iraeta Álvarez.

EH BILDU

- 1.- Unai Badiola Urrate
- 2.- Antziñe Biain Fernández de la Reguera
- 3.- Gorka Iñurritegi Lasa



4.- Inmaculada Albisua Irureta

P.S.E. - E.E.:

- 1.-Mikel Serrano Aperribay
- 2.- Rosa Maiza Garrido
- 3.- Oscar Valbuena Pascual
- 4.- Fco. Javier Martín Mateo.

IRABAZI

- 1.- Unai Orbegozo Uribesalgo
- 2.- Alberto Bezunartea Fernández
- 3.- Alberto La Rosa Viedma
- 4.- Nerea Altolagirre Berastegi

Inork hitza eskatu ez eta erreklamaziorik ere izan ez denez, Adin Mahaiaren lehendakariak hasiera eman dio botazioari.

Hau amaituta, botoak kontatu egin dira, eta Adin Mahaiaren kideek ozen irakurri dituzte emandako boto guztiak:

EAJ-PNV.....	14 boto.
EH BILDU.....	12 boto.
PSE-EE..	12 boto.
IRABAZI.....	3 boto.

Idazkariak bilkuran diren guztiak gonbidatu ditu botoak ikusi eta egindako eragiketa aritmetikoa egiazta dezaten. Ondoren, boto-paperak suntsitu egin dira.

Botazio honen emaitzaren argitan, honako hautagai hauek izango dira lehendakari eta lehendakariordeak:

- Lehendakaria, Koldobike Olabide Huelga and., EAJ-PNVren zerrendaburua.
- Lehendakariorde lehena, Unai Badiola Urrate jn., EH BILDUren zerrendaburua.

4.- Inmaculada Albisua Irureta

P.S.E. - E.E.:

- 1.-Mikel Serrano Aperribay
- 2.- Rosa Maiza Garrido
- 3.- Oscar Valbuena Pascual
- 4.- Fco.Javier Martín Mateo.

IRABAZI

- 1.- Unai Orbegozo Uribesalgo
- 2.- Alberto Bezunartea Fernández
- 3.- Alberto La Rosa Viedma
- 4.- Nerea Altolagirre Berastegi

No produciéndose intervención alguna, ni reclamación alguna por el Sr. Presidente de La Mesa de Edad se procede a dar inicio a la votación.


Efectuada la votación, se procede al escrutinio y recuento de votos, dándose lectura por los miembros de la Mesa de Edad en voz alta, a los votos emitidos:

EAJ-PNV.....	14 votos.
EH BILDU.....	12 votos.
PSE-EE..	12 votos.
IRABAZI.....	3 votos.

La Secretario invita a todos los presentes a que comprueben las papeletas y verifiquen las operaciones aritméticas, procediéndose acto seguido a la destrucción de las papeletas.

A la vista del resultado de esta votación son proclamados Presidente y Vicepresidentes los siguientes candidatos:

- Presidenta, Dña. Koldobike Olabide Huelga, cabeza de lista de EAJ-PNV.
- Vicepresidente primero, D. Unai Badiola



- Lehendakariorde bigarrena, Mikel Serrano Aperribay jn., PSE-EEren zerrendaburua.

- Lehendakariorde hirugarrena, Unai Orbegozo Uribesalgo jn., IRABAZIren zerrendaburua.

Koldobike Olabide Huelga hautetsi andreak aditzera eman du onartzen duela elkarteburu edo lehendakari kargua, eta ezarritako dagoen bideari jarraiki, kargu horretaz jabetu da Udal Elkartearen Batzar Orokorraren aurrean, honek kargua eman baitio indarrean dauden lege xedapenek ematen dizkion ahalmen, eskubide eta betekizun guztiekin.

Unai Badiola Urrate, Mikel Serrano Aperribay eta Unai Orbegozo Uribesalgo jaunek ere, bere aldetik, adierazi dute onartzen dituztela lehendakariorde lehen, bigarren eta hirugarrenaren karguak, hurrenez hurren.

Ondoren, lehendakari andreak hitza hartu eta, lehenik, zoriondu egin ditu orain aukeratutako lehendakariordeak, berarengan jarri duten konfiantzagatik eskerrak eman, eta bereziki eskerrak eman dizkie kargutik ateratzen diren kideei, orain arte egindako lanagatik.

Bestetik, azaldu du Mankomunitate honen zerbitzura jartzen dela, eta esan du ezen, jakin badakien arren lan zaila izango duela, ez dela aiantzi behar ez garela hutsetik abiatuko, badira eta martxan dauden proiektuak, hala nola Bertatik Bertara, Orto eta Onbideratu, Emakumeen Etxea eta Ignaziotar Bidea. Aurrera segituko duten lau proiektu dira, baina ez da aiantzi behar gure eskualdeak industri bokazioa duela, eta lan egin behar dela lanpostuak sortuko dituen

Urrate, cabeza de lista de EH BILDU

- Vicepresidente segundo, D Mikel Serrano Aperribay, cabeza de lista de PSE-EE

- Vicepresidente tercero, D Unai Orbegozo Uribesalgo, cabeza de lista de IRABAZI


La Concejala electa Dña. Koldobike Olabide Huelga manifiesta aceptar el cargo de Presidenta de la Mancomunidad y de acuerdo con la forma general establecida, toma posesión del cargo de Presidente ante la Asamblea General de la Mancomunidad, que le confiere esta posesión con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes.

D. Unai Badiola Urrate, D. Mikel Serrano Aperribay y D. Unai Orbegozo Uribesalgo, manifiestan a su vez aceptar los cargos de Vicepresidente Primero, Segundo, y Tercero respectivamente.

Acto seguido la Presidenta toma la palabra y en primer lugar felicita a los vicepresidentes por su elección, agradece la confianza que han depositado en su persona, y agradece de manera especial a los miembros salientes por el trabajo realizado.

Por otra parte expone que se pone al servicio de esta Mancomunidad, y dice que aun y cuando es consciente de que la labor será difícil, no hay que olvidar que no se parte de cero, dado que existen proyectos que están en marcha tales como Bertatik Bertara, Orto y Onbideratu, la Casa de las Mujeres, la Ruta Ignaciana. Son cuatro proyectos que se seguirán llevando adelante pero sin olvidar que nuestra comarca tiene vocación industrial y que hay que trabajar para lograr una reindustrialización que cree empleos.

Dice que tampoco quiere olvidar la crisis de



berrindustrializazioa lortzeko.

Hurrena esan du ez duela aiantzi nahi errefuxiatuen krisia, Bigarren Mundu Gerraz geroztik handienetakoa den horrek erantzun sendo, koordinatu eta orokorra behar baitu. Lanik ez dela faltako esan du, baina lan egiteko gogorik eta ilusiorik ere ez; denon laguntza behar du horretarako, eta horrenbestez denon zerbitzura ere jarriko da.

Lehendakari andreak hitzen txanda abiatu duelarik, ondoren lehendakariorde lehen Badiola jaunak ongi etorria eman die lehendakari andreak eta lehendakariorde hirugarren Orbegozo jaunari, orain abiatzen den legegintzaldi honetan berriak baitira; Olabide andrea lehendakari karguagatik ere zoriendu du.

Hurrena esan du ezen, maila pertsonalean, ilusioz ekiten diola orain abiatzen den bideari, eta EH Bilduren izenean konpromisoa hartzen duela lehendakari andreak aipatu dituen proiektuetan, Bertatik Bertara deituan esaterako, lan egiteko, baina aiantzi gabe lan egin behar den eskualdeko beste egiturak ere.

Lehendakariorde bigarren Serrano jaunak, lehenik, lehendakari andrea, lehendakariorde jaunak eta zinegotzi guztiak zoriendu ditu, eta eskerrak eman ditu Zabaleta andreak -lehendakariak- eta Peñagarikano eta Téllez jaunek -lehendakariordeek- orain gutxi amaitutako legegintzaldian egindako lanagatik.

Azaldu du lanaren oinarriak finkatuta daudela eta hainbat esparru daudela, lehen sektorea Bertatik Bertara-rekin, soziosanitarioa, turismoa... eta proiektu horiek aukera ematen dutela udalerrri bakoitzak bere aldetik jo beharrean bidea elkarrekin eta eskualde mailan egiteko; ibiltzen segituko den bideko

los refugiados que es una de las mayores desde la segunda guerra mundial, y que necesita de una respuesta contundente, coordinada y global.


Expone que no va a faltar el trabajo pero tampoco las ganas y la ilusión por trabajar, labor para la que necesita el apoyo de todos y para la cual se pone, también al servicio de todos.

Iniciado por la Sra. Presidenta un turno de intervenciones, el Vicepresidente Primero Sr. Badiola, da la bienvenida a la Sra. Presidenta y al Vicepresidente Tercero, Sr. Orbegozo, corporativos nuevos en esta nueva legislatura que comienza su andadura, y también felicita a la Sra. Olabide por su cargo de Presidenta.

Sigue diciendo que, personalmente, acomete con ilusión esta nueva andadura, y en nombre de EH Bildu adopta el compromiso de trabajar en los proyectos, como Bertatik Bertara, que ha mencionado la Sra. Presidenta, pero indica que no hay que olvidar el resto de estructuras comarcales con las que hay que trabajar.

El Vicepresidente Segundo, Sr. Serrano, en primer lugar felicita a la Sra. Presidenta, a los Vicepresidentes, y a todos los corporativos, y agradece la labor llevada a cabo por en la recientemente finalizada legislatura por la Presidenta, Sra. Zabaleta y los Vicepresidentes, Sres. Peñagarikano y Téllez.

Expone que las bases de trabajo están fijadas y que hay diferentes ámbitos, el primario con Bertatik Bertara, el sociosanitario, el turismo, proyectos que posibilitan que en lugar de que cada municipio camine por su lado, se haga un camino conjunto y comarcal, se han dado los primeros pasos de un camino que se seguirá recorriendo, sin olvidar, por supuesto, la



lehen pausoak egin dira, berrindustrializazioa ahantzi gabe, noski. Ez dira ahantzi behar, era berean, eta lehendakari andreak jada esan moduan, gizarte garapena eta urritik aurrera erantzun bat eman beharko diogun errefuxiatuen krisia. Ahaleginak batzea eta jarrera partidistak baztertu eta erronka komunak direnez elkarrekin lan egitea eskatzen duten proiektu eta esparruak dira.

Aipatu du, halaber, Irabazik inolako arazorik gabe zerrenda bat aurkeztu izana sintoma ona dela, kontuan harturik aurreko legegintzaldian gauza bera planteatu zela eta hainbat kontsulta egin behar izan zirela Foru Aldundian, batzuek H1!ek PSE-EEren laguntzarekin aurkeztutako zerrenda baliogabetu nahi zuten eta. Gaur erabateko naturaltasunez egin da, eta bere ustez pozik egoteko arrazoi bat da hori.

Lehendakariorde hirugarren Orbegozo jaunak zoriondu egin ditu lehendakari and. eta beste bi lehendakariordeak, eta eman dioten laguntza eskertu du. Azaldu du ezen, eskualde mailan, lan asko dagoela egiteko, batez ere esparru sozialean, zeren eta desberdintasunak eta langabezia handiak baitira. Horregatik, indarrak batu behar ditugu, arazo horiek arindu eta errefuxiatuei ateak zabaldu ahal izateko. Esan duenez, bere iritziz gai sozialak egoera kritikoan daude, eta horregatik lan asko egin behar da gehien sufritzen dutenen aldeko politikak sendotzen ahalegintzeko, ez bakarrik errefuxiatu mailan, baizik eta dagoeneko gure udalerrietan dauzkagun etorkinen mailan ere. Horregatik, eskualde honetan lan egiteko bere gogo eta ilusio gutzia jarriko du.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, lehendakari andreak amaitutzat eman du bilera, arratsaldeko zortziak hamar gutxi direnean. Eta nik, idazkaria naizen aldetik,

reindustrialización. Tampoco hay que olvidar, como ya lo ha dicho la Sra. Presidenta, el desarrollo social, y la crisis de los refugiados que desde octubre vamos a tener que atender. Son proyectos y ámbitos que requieren aunar esfuerzos y desmarcarse de actitudes partidistas para trabajar en común para retos comunes.

También hace referencia a que es buen síntoma haber sido capaces de que Irabazi presente una lista sin ningún tipo de problema, teniendo en cuenta que en la anterior legislatura se planteó lo mismo y se tuvieron que realizar consultas ante Diputación Foral por la intención de algunos de invalidar la lista presentada por H1! Con el apoyo de PSE-EE. Hoy se ha hecho con toda naturalidad y es algo por lo que, a su juicio, hay que congratularse.



El Vicepresidente Tercero, Sr. Orbegozo, felicita a la Sra. Presidenta y a los otros dos Vicepresidentes y agradece el apoyo que le han prestado. Expone que, a nivel comarcal queda mucho trabajo por delante, especialmente en el ámbito social dado que existen muchas desigualdades y mucho desempleo, por lo que hay que aunar fuerzas para paliar estos problemas y para abrir puertas a los refugiados. Dice que, a su juicio, la cuestión social está en situación crítica y es por ello que hay que hacer mucho trabajo para intentar fortalecer con políticas a favor de los que más sufren, no solo a nivel de refugiados sino de los propios inmigrantes que ya tenemos en nuestros municipios. Es por ello que pone sus ganas y su ilusión para trabajar en esta comarca.

Y no habiendo más asuntos que tratar la Sra Presidenta levanta la sesión siendo las diecinueve horas cincuenta minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados extendiendo la presente



aztertu dena eta hartutako erabakiak erasota
uzteko akta hau egin eta bertan jasotako
guztiaren fede ematen dut.

Acta, de todo lo cual, yo, la Secretario, doy
fe.

<p>Akta hau 2016-04-05ean egindako bileran onartu zen:</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> Baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 05-04-2016:</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> En su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> Si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
 <p>Idazkaria</p>	 <p>Lehendakaria</p>